


## 6. Juan Antonio Mogel Urkitza

1745-1804, eibartarra

Komunikazioaren egilea: zenbait.

### 6.1. Bizitza



Mogel idazlea eta apaiza izan zen, euskerazko lehen eleberria (Peru Abarka) idazteagatik ezaguna. Haren iloba Bizenta eta Juan Jose Mogel ere euskal idazleak izan ziren.


Eibarren jaio zen, bere aita bertako medikua zelarik. Lau urte zituela Debara joan ziren bizitzera eta han lau urte igaro ondoren Markinara aldatu ziren. Aita, Joan Ignazio Mogel Almazan medikua, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kidea zen eta bera ere horko kidea izan zen.

Filosofia eta Teologia ikasi zituen eta 1770ean apaiz egin zen, eta Markinako erretore izan zen 1788az gero, hil arte. Frantziako Iraultzatik ihesi Hegoaldera zetozen Iparraldeko apaizei etxean babesa eman zien.

Harremanak izan zituen, besteak beste, Astarloarekin, Peñafloidarekin, Samaniegorekin, Vargas Poncerekin eta Joan Batista Agirrerekin.

Arazoak izan zituen Inkisizioarekin, neska batekin zuen harremana zela eta. Ezin izan zuen apaiz gisa jardun baina idazteari ekin zion. (*Wikipediatik hartutako laburpena*).

### 6.2. Argitalpenak



“Bere *Peru Abarka*, eleberri itxurako lehen euskal idazlana dela uste da. Izenburu osoa *El Doctor "Peru Abarka", catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Dialogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan* da.

Euskal bertute guztien jabe den baserritarraren eta harroputz bezain ezjakina den bizargile kaletarraren elkarrizketak eta bizipenak darabiltza Mogelek, euskal kulturari buruzko lan etnografiko bat idazteko.

Baserri munduko lanbideak, lanabesak, animaliak eta hauen gorputz atalak, landare zuhaitzak,... horiek denak azalduko dizkio Peru Abarkak Maisu Juan lagunari, eta bere jakinduriarekin Maisu Juan kaletarra txundituta geldituko da. Eta horixe da idazlearen helburua: Euskal hizkuntza eta kulturaren apologia bat egitea” (*Wikipediatik hartutako laburpena*).

Liburu honetan euskeraren jatorriari buruz ere aipamen batzuk daude [Klasikoen Gordailuan](#) [Eibarko internet komunitatean](#)

### 6.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Sarreran, gazteleraz, 28-25 zatietan, hizkuntzari buruzko informazio interesgarria utzi zигun Mogelek. Esan zuen euskerazko hitzetan 3-4 erro egon daitezkeela eta zuhurtzia handiaz jokatu behar dela barruan zer dagoen asmatzeko.

Itsaso hitzean ura adierazten duen erroa IS (bizkaieraz) edo IZ (gipuzkeraz) da. Eta hor ditugu Ispazter (itsasoren bazterra), Itziar (itsasoaren malda), Izaro (itsasoaren biribila edo uhartea), Izurdea (itsas urdea), Izokina.

Baina IZ erro hau berau beste kasu batzuetan hitza esan nahi du. Eta hortik atera dira: Izkunea, Itzontzia, Izkuntza...

España hitzari buruz dio bere ustez Ispania dela hitz zaharra eta hori IS eta BANIA (edo pania) egon daitekeela: banaketa, zatiketa. B/P alternantzia sarritan gertatzen dela esan zuen: ASPE / ASBE, ARRIPE / ARRIBE, URPE / URBE. Bere ustez, Ispania itsasoak banatutakoa edo itsasoak zatitutako lurraldea liteke. Bere ustez Afrika eta Europa zatitzen duen itsas zatia da, Gibraltar aurrean dagoena. Ez du uste feniziarrek ekarritako SPAHAN untxitik datorrenik.

Calpe etimoari buruz mendiari baino mendiaren azpian omen zegoen herriari dagokiola uste zuen eta Herodotok aipatutako Calpeia izan litekeela esan zuen. Kal edo kala, Mogelen eritiz, leku ikusgarria edo leku altua esan nahi du. Adibidez Kalamendi dugu, itsaso gainean ere bai. Kalamuaga beste mendi baten izena da. Carteia beraz CAR eta TEGIA izan litezke bere osagaiak.

Lekuak adierazteko atzizki asko ditugula esan zuen: OLA, EGI, TEGI, TZA, DI, UDI, IKA, ANO EDO INO, ETA, AGA, AKA, EDO. Adibidez: Arregi, Artegi, Arteta, Artatza, Arteaga, Artadi, Miruludi, Urkidi, Urkiola, Otxandiano, Zatika, Gorniz, Malaka (Malaga), Loreda.

Leku izenak beti deskripzioak direla esan zuen eta horrela lekuaren informazioa ematen digutela. Hizkuntza oso emankorra dela esan zuen, Urkiarekin hainbat hitz sortzen dugula ikusia: Urkiola, Urkiza, Urkidi, Urkitsu, Urkixo, Urkiaga, Urkitegi, Urkiano...

Hiria esateko honako erroak ditugula esan zuen: URI, IRI, ELI, ILI, ULI, ERI, ERRI, batzutan aurretik eta beste batzutan atzetik. Horrela URIAuraren hurbil dagoen herri esan nahi du, HIRIA ere berdin. Iruñaren osagaiak IRI eta ONA dela uste zuen.

Itzulpenak egiteko ideia bat bota zuen: irakurri gaztelerazko edo frantseseko sermoia eta hitzez hitz euskeraz esan beharrean, libreki azaldu, berez irteten den moduan.